

“WIKIA ERABILI AHAL IZATEKO, EGOKITZE FASE BAT PASATU BEHAR IZAN DUGU”



Jokin Izar | Branka | Orokieta Herri Eskola | LH 2

Orokieta Herri Eskolako Branka taldeak Kosmodisearen Grapho fase honetan, gainerako taldeek baino puntu gehiago lortu ditu Lehen Hezkuntza 2an. Nahiko ondo moldatu dira wikia erabiltzeko orduan, Jokin Izarrek koordinatzen duen taldearentzat berritasuna izan arren.

Grapho planetaren amaieran aurreneko bi postuak lortuta, zuen eskola garaitzat jotzen al duzue?

Lehen postuetan ibiltzeak poza ematen digu, baina ebaluazioetan ikasleen gustuak aldakorrek direla eta edozein momentuetan gauzak alda daitezkeela badakigu, beraz azken momentu arte ezin dugu geure burua garaitzat jo. Gustatuko litzaiguke, baina Kurasaalen ikusiko da .

Ba al da lehiarik zuen zentroko taldeen artean?

Talde bakoitza bere erritmo propioa darama eta elkarren arteko kompetibitatea ez da somatzen. Denak saiatzen dira euren lanak ondo egiten bestea kontutan eduki gabe.

Zer moduz moldatu zarete wikia erabiltzen?

Wikiaren lana aurten lehen aldia izan da talde hauentzat baina orokorrean nahiko ondo moldatu dira.

Ba al du zailtasun gehigarri eta ustekabekorik?

Lan berri guztiak bezala egokitzearen epea behar du eta horretan ibili gara.

Zer trebetasun berri eskatzen dizkie ikasleei?

Lanen antolamendua, Interneten ondo mugitzea eta 2.0-ko zerbitzuak ezagutzea

Zure ustez puntuazio-mailari eutsiko diozue Mito planetan?

Beti bezala, Mitoko bideo lana ahalik eta hoberen egiten saiatuko gara. Gero... gerokoa!

[Orokieta Herri Eskolakoen lana ikusi \["Branka"\]](#)